



# Jakinarazpena / Comunicación

Gizarte Segurantzza eta Pentsio Sistema Propio Baterantz  
EAErentzat eta Nafarroarentzat

---

Hacia un Sistema Propio de Seguridad Social y Pensiones para la  
CAV y Navarra



# EUZKADI BURU BATZARRAK

AURKEZTUTAKO

# JAKINARAZPENA

---

*"GIZARTE SEGURANTZA ETA PENTSIIO SISTEMA PROPIO BATERANTZ,  
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARENTZAT ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEARENTZAT"*

**GIZARTE SEGURANTZA ETA PENTSION SISTEMA PROPIO BATERANTZ,  
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARENTZAT ETA NAFARROAKO FORU  
KOMUNITATEARENTZAT. EUSKADI ETA NAFARROA BELAUNALDI  
GUZTIENTZAT ERAIKIZ**

**SARRERA**

Euzko Alderdi Jeltzaleak, bere konpromiso historikoei eta bere jokabide instituzionalean eta gobernu-jardunean erakutsitako bokazioari eutsiz, Euskadi guztiontzat eta belaunaldi guztiontzat eraikitze hartuta duen konpromiso irmoa adierazten du, Gizarte Segurantzaren Sistema bat eratuz Euskadin/Euskaditik/Euskadirentzat, autogobernua eskuratu genuenez geroztik defendatu izan ditugun printzipioekin bat etorritik: **babes-sistema iraunkorra, babes maila nahikoa eskaintzen duena, publikoa, ez-erregresiboa eta geure instituzio publikoek kudeatua**. Gizarte Segurantzaren euskal sistema, Ongizate Estatu inklusibo baten funtsezko atal gisa, pertsonen eta Herrialdearen aldeko politika sozial eta ekonomiko guztien motortzat eta azken helburutzat hartuta.

Hala, aipatutako printzipioak bete nahirik, Euzko Alderdi Jeltzaleak ulertzen du bere konpromisoak eta bere ardura politikoak eskatzen diotela, bai indarrean dagoen eskumen-araudiaren babespean (Gernikako Autonomia Estatutuaren 18. Artikulua eta V. Xedapen Iragankorra, Gizarte Segurantzako sistema Publikoa Hitzarmen Erregimenean ekonomikoki kudeatzeari dagokionez; Gizarte Laguntzaren alorreko eskumen eskusibo osoa, oinarrizko legediaren mendetasunetik kanpo, Estatutu horren 10.12. artikulua arabera; eta sustapenerako eskumen propioak, aurrekontu-ahalmen propioa eta herritarren behar sozialentzako arreta) eta bai ekonomiaren, finantzen, sustapen publikoaren eta gizarte aurreikuspenaren alorretako -besteak beste- erabakiak hartzeko eta kudeatzeko autonomiaren babespean, zuzenean inplikatzeko **Gizarte Segurantzako sistema moderno baten sorreran**, babes sozialeko sistema zabalago batean txertatuta, euskaldunentzako pensio duinak konfiguratu ahal izateko. Horrenbestez, EAJ-PNVk bere ahaleginak biderkatu nahi ditu, eskura dituen tresna, eskumen eta gaitasun guztiez baliatuz, herritar guztiei zuzendutako gizarte segurantzako eredu propio bat konfiguratzeko egokiak diren egiturak sortzeko, funtsezko premisa hauek gidatuta:

1. Gizarte ongizate eta babes unibertsalak, publikoak eta kalitatezkoak.
2. Sistema bideragarri eta iraunkor batean eta belaunaldien barneko eta belaunaldien arteko konpromisoan txertatutako gizarte segurantzako eredu bat.
3. Eredu esplizitu bat, prestazio, eskubide eta betebeharrak guztiak bermatzen dituena.
4. Eredua bideratzeko, prestazio guztiak kudeatuko lituzkeen **Agentzia Publiko** bat eratuko litzateke, gardentasunarekin eta kontrol independentearekin lotutako zereginekin; bere eginkizunen artean, azterketa, behaketa eta prospektiba egongo lirateke, eta sistemaren bideragarritasun iraunkorra bermatuko luke, sistema osoaren kudeaketa zuzena kontrolatzeaz batera.
5. Instituzioen eta sailen arteko lankidetzak, Gizarte Segurantzaren Euskal Sistema zabalean –prestazioak, babesa, bermea, finantziazioa, gauzapena eta kontrola-inplikaturako eragile guztien koordinazio eta konbergentzia lortzeko xedez; sistema hori, gainera, gizarte babesaren eredu zabalago batean egongo litzateke txertatuta, Euskadin.

**1. Abiapuntuko egoeraren errealtasun motik**

Oraingo egoera aztertzeaz arduratzen den beste edozein bezala, jakitun gaude Pentsioen Sistema Publikoak espainiar Estatuan gaur egun pairatzen duen defizit-egoeraz (13.000 milioi euro); horren ondorioz, garbi dago Funtz erantsiak eta/edo bere oraingo bertsioaren erreforma sakona behar direla, sarrera gehiago lortzeko alternatibak bilatuz.

Badakigu, gainera, langabeziari buruzko aurreikuspenek ez dutela berrikuntza sintomarik erakusten, zeren Gizarte Segurantzaren kotizatzaileen jaitsiera gero eta handiagoa izango omen baita, eta, gainera, beharrezkoa izango da 4.000.000 langabe baino gehiagoren eskari sozialari erantzutea. Badakigu Euskadiren erradiografia Estatuarena baino hobea dela; hala, estrapolazio soilak egiten baditugu, aldaketa estruktural berririk erantsi gabe, gure langabeziaren eta defizitaren tasak 10 puntu txikiagoak direla ikus dezakegu. Horren eraginez, abiapuntuko ikuspegia positiboa da Pentsio Sistema propio bat birdiseinatzeke eta inplementatzeko. Sistema horrek, arreta eta gizarte babesaren (osasunaren alorreko gastua, sarrerak bermatzeko errenta, Gastu soziala eta finantza publikoen egoera ona) oraingo mailari lotuta –krisialdi gordinean gaudela kontuan hartuta-, bidea ematen du gizarte segurantzako sistema propio eta bereizi baten sorrera hipotetikoak kontsideratzeko, kontuan hartuta sistema horrek egokitzapen eta eraldaketa sakonak eskatzen dituela. Oraingo ereduak, bere gaurko kudeatzaileak zeinahi direlarik ere, ezin eskaini ditzake eskatu eta behar ditugun irtenbideak, eta ez du horretarako eraginkortasunik.

Badakigu, orobat, espainiar sistemaren oraingo “ongizate” estatu gatibuaren premisa “bazterrezinek” ez dutela ahalmen nahikorik errealitate eta eskari sozialari erantzuteko; garbi dago, horregatik, “estilo eta eduki berriko enpleguaren iraunkortasuna” edo “Kutxa Bakarra” goستن dituzten aldarrikapenek, ustezko “lurraldean arteko elkartasunik ezaren” aipamenek eta “guztionez kafe” berdintzaileak, aurrezpenean eta borondatezko gizarte aurreikuspenean egon daitezkeen alternatiba desberdinen aurrean, ez dutela ibilbide luzea egiterik. Kezkatuta ikusten dugu Estatuaren gizarte segurantzako sistema propioaren kudeaketa-defizita, eta garbi ikusten dugu kotizazioarekin eta enplegu formalarekin duen lotura iragan mendeetako eredu bat baino ez dela, hau da, ikusten dugu egitura eta erakunde zaharkituak mantendu nahi direla nahitaez.

Espainiar gobernu bera da, boterean txandakatu diren bi alderdiren arteko oinarritzko itunekin batera, alarma deia jo duena eta sistemaren agorpen nabaria iragarri duena 2019 urterako, formula berriak asmatzera behartuz.

Panorama berri horretan, gainera, desoreka aktuarialak eragin negatiboa izango du, eta ikuspegi demografikoek are larriago bihurtuko dute egoera; izan ere, biztanleriaren berezko zahartze-prozesua datu huts moduan hartzen du, eta ez irtenbide potentzial bezala, elementu berriei esker: enplegu modalitate berriak, gizarte eraldaketa, guraso- eta familia-egitura berriak, eta jarduera ekonomiko, aberastasun eta enplegu iturri berriak ere bai. Estatistikak behatzearekin konformatzea ez da bidezkoa gobernatzeko ardura eta konpromisoa duen ezein alderdi politikorentzat. Alderdi arduratsu batek buru-belarri lan egin behar du etorkizun berri eta hobe bat eraikitzeko. Oraingo aurreikuspen demografikoak aldatu ezean, Euskadi eta Nafarroak biztanleria txikiagoa izango dute, eta beren osaera estrukturala oraingoaren antzekoa izango da, baina bestelako ekonomia batekin. Gure eskuetan dago etorkizunari aurrea hartzea: familia kopuru handiagoak (familia desberdinak, oraingoan aldean), hiritarragoak, per capita errenta handiagokoak, eta enplegarritasun eta bizimodu forma desberdinekoak. Espazio desberdin bat, erreferente demografiko berriekin, behar berriekin, exigentzia berriekin, aukera berriekin. Aldaketa-prozesu saihestezin horretan, Euskadik eta Nafarroak indarrean dagoen eskumen-esparrua era baliatu behar dute, zeren bidea ematen baitie (eta behartu egiten ditu) beren ardura modu erabakigarrian bultzatzeko, ezinbesteko errebindikazio politikotik harago. Bai Gernikako Estatutuak eta bai Hobekuntza arauak (indarrean daude alor honetan, baina alde batek behin eta berriz hausten ditu) eta hainbat alorretan dituzten eskumenek -gizarte segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa, Gizarte Aurreikuspena, gizarte laguntza, osasuna, aurrekontuak, finantza-fluxuen kudeaketa eta jarduera sozio-ekonomikoa sustatzeko ahalmena- exijitzen dute gure Gizarte Segurantzaren eredia barne hartzen duen Babes konpromiso espezifikoen alde bultzatu eta aplikatu daitezela.

Azken batean, sistemak Estatuan gaur egun pairatzen duen egoera txar eta kaotikoak berak bultzatu eta erraztu behar du sistema eta eredu propio baten aplikazio arduratsua, Euskadin/Euskaditik eta Euskadirentzat eta Nafarroan/Nafarroatik eta Nafarroarentzat.

## **II. Eraldatu beharreko legedi nahasi bat**

Sistemaren defendatzaile eta eragileek berek eskaintzen duten panorama horren aurrean, hau da, defizit eta kolapso horren aurrean, garbi dago aldaketa erradikal bat dela beharrezkoa. Orain dela gutxi, Estatuko gehiengo osotik zenbait lege onartu dira, Lege-dekretuaren bide ez-ohiko eta demokrazia eskasekoa erabiliz. Bada, errealitatea "Erreforma Parametrik" multzo batean finkatu da, eta erreforma horrek okerrera baldintzatzen ditu etorkizuneko gastua eta ordezen-tasak, eta oso kaltegarria da langileentzat, hainbat alderditan: erretiratzeko adina, aurretiko ezaldia, oinarri arautzailea, aplikazioaren oinarri eta ehunekoak, osagarriak eta erretiro partzial edo aurreratua; horrez gain, arreta eta babes falta nabaria sortzen du biztanleriarentzat; izan ere, bere bizi-itxaropena luzatu egiten da (zorionez), baina baztertuta geratzen da barne hartu beharko lukeen gizarte sistematik. Gizarteak gero eta gehiago atzeratzen du laneratze-aldia, eta, aldi berean, etorkizuneko prestazioei buruzko itxaropenak hondatzen zaizkio, enplegutik kanpo emango duen bizi-aldi luze baterako.

Erreforma negatibo horiek iragankortasun-aldiari buruzko erregulazioekin onartzen dira, jardunean dagoen langile kotizatzailea zigortuz, bere ibilbidea egokitzeke denborarik ematen ez baitaio. Eta, zer esanik ez, are okerragoa da –langabezia egoera eta instituzioek autoenplegua sustatzeko egiten dituzten ahalegin gero eta handiagoak ikusita- langile autonomoen egoera, zeren euren prestazioak, kalkulu-aldiak eta oinarriak modu murriztailean arautu baitira. Horrez gain, gaur egun bizi ditugun atzeraldiak eta deflazio-aldiak badute eragina –eragin negatiboa- Pentsio Sistemaren iraunkortasun eta errebalorizazio faktorea arautzen duen legedian, eta modu larri eta nabarian murrizten dituzte etorkizuneko zenbatekoak.

Adibide gisa, eta alor horretan duen planteamendu politiko eta estrategikoa erakutsiz, EAJ-PNVk aukera izan zuen eratzten ari zen pensio-ereduari buruz zituen iritzia eta ikuspegia adierazteko, Gizarte Segurantzaren pensio-sistemaren Iraunkortasun Faktorea eta errebalorizazio indizea arautzen duen Legea –garai hartan lege-proiektua zen- espainiar Gorteetan tramitatu zenean; garai hartan aurkeztutako osoko zuzenketan, kezka sakonak adierazi zituen alderdiak, eta bestelako orientazio bat behar zela adierazi zuen.

Gaur egun, bere planteamendua ez da aldatu, eta komenigarria da gogoratzea, zeren eredu estatala konpartitu gabeko eredu baten paradigma baita; beraz, alderdi gisa aukera dugun guztietan, horren alderantzizko eredu aldarrikatuko dugu.

## **III. Eredua baldintzatzen duten faktoreak**

Euskadin Gizarte Segurantzaren eredu autonomoari begira ( gaur egun arautzeko gaitasunik gabe eta bakarrik kudeatzeko ahalmenarekin), hurrengo hauek hartu behar ditugu oinarrizko aldagarri gisa:

**1.- Horizonte demografikoa:** biztanleriaren zahartzea, bizi-itxaropena, jaiotze-tasa eta "baby boom" belaunaldiak desoreka finantzarioetan duen inpaktua.

**2.- Pentsioetara zuzendutako gastua:** finantziarioa eta finantza publikoen gaineko presioa. Pentsioetarako gastua kudeatzea sektore publikoaren defizita kontrolatzeko tresna gisa? (Espainiako Estatuaren Aurrekontu Orokorren % 36 pentsioetara zuzentzen da), koefizientea edo erreferentziazko indizea pentsioen errebalorizaziorako, erretiratzeko adina, pentsioa kalkulatzeko formula (erreferentziazko aldiak vs lan-bizitza osoa), pentsioaren zenbateko eta iraupenaren eta lan-bizitzan kotizatutakoaren arteko erlazioa, lan-urteak / prestazio-urteak eta bizi-itxaropenak.

**3.- Aktiboaren eta pasiboaren arteko ratioa:** langabeziaren hazkundera; afiliatu gabekoaren edo kotizatzen ez dutenen kopuruaren hazkundera; atzerritarrak beren jaioterrira itzultzea eta tokiko talentuaren atzerriratzea; biztanleria aktiboaren jaitziera, BPGaren hazkunde-indizeak; enplegua eta produktibitatea; produktibitatearen hazkundeak garrantzirik ez izatea sistemarentzat (gehieneko kotizazio-oinarriak eta pentsioak mantendu egiten dira, eta gutxieneko oinarriak eta pentsioak hazi egiten dira urtero), kontratu-formula prekarioak (aldi baterako kontratuak, prestakuntza-kontratuak edo bekak, zeinetan, kasurik onenean, kontingentzia arruntak soilik babesten baitira; kotizazio-karrera ez nahikoak etorkizunean pentsio nahikoa bermatzeko (eskubidea), ezta oraingo pentsioen finantziarioa bermatzeko ere (likidezia).

**4.- Kudeaketa eta posizio finantzarioa:** kutxa bakarreko ereduak aurreikuspen estatutarioen garapena mugatzen du, eta, hortaz, saihestu egin beharko litzateke; sistemaren egoera finantzarioa (estatu mailan, sistema kontributiboaren oraingo defizita 11.000 m euro dira, 2015rako egindako kalkuluen arabera, enplegu-zerbitzu publikoak barne sartuta; gainera, enplegu-zerbitzu publikoek 4.000 m € zor dizkiote gizarte segurantzari; desoreka aktuariala; sarreraren eta gastuen artean ekitaldian egondako diferentzia, pentsio kontributiboaren alorrean (gastua (2012): 108.574 m € (prestazio kontributiboa agortzen duten langabeek afiliazioa galtzen dute, baina sistemaren sorospenak jasotzen jarraitzen dute; eta sarrerak (2012): 101.106 m €).

#### **IV. Etorkizuneko bilakaera: iraunkortasuna eta errebalorizazioa**

Oraintxe bertan aztertu behar dira sistemak izan ditzakeen bilakaerak, zeren ereduaren bideragarritasuna horren mende egongo baita Euskadin. Hala, kontuan hartu behar da Estatuak onartutako araudiak gizarte segurantzaren sistemaren etorkizuna mugatu duela, abenduaren 23ko 23/2013 Legearen bitartez, hau da, Gizarte Segurantzaren Sistema Publikoaren Iraunkortasun Faktorea eta Errebalorizazio Indizea arautzen dituen legearen bitartez.

Laburbilduta, arau honek hauxe ezartzen du: 1/1994 Errege Lege Dekretuan konfiguratutako eredu historikoa aldatzen du, hau da, Pentsio indibidualizatuaren inguruan konfiguratutako eredu (langile bakoitzaren lan-historialari lotuta; antzinatasuna; kotizazio-oinarriak; lanaldi osoak eta lanaldi partzialak uztartzea; aparteko orduak; kontratuan gerta daitezkeen etenaldiak; eta abar), eta baita iturrien bereizkuntza printzipioa ere; pentsioak galdu egiten du langile bakoitzarentzat zuen dimentsio singularra, horren ordez uniformizazioa ezartzen baitu, batez besteko bizi-itxaropenetan oinarritutako koefizienteak aplikatuz (berdinak langile guztientzat, INEren erabakiz); pentsioen igoera KPItik desindexatzen da: oraingo pentsioek % 10eko galera izango ote dute, batez beste, erosteko ahalmenean? (normaltasun egoeretan, hau da, KPIa igotzen baldin bada); pentsioa bizi-itxaropenen arabera konputatzen den koefiziente batean oinarrituta kalkulatzen da (INEren datua), bost urtetik behin; sistema hibrido eta mistoa, non kontingentzien zati bat Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren bidez finantzatzen baita, eta beste zati bat Aurrekontuen bidez (Estatuaren Aurrekontu Orokorrak); Memoria ekonomikoa: 33.000 M €ko aurrezpena kontsignatzen du; Belaunaldien arteko Ekitate Faktorea: aurreikusitako pentsioak % 20-30 murriztuko direla (Europako Banku Zentralaren erreferentzia), eta urtebete aurreratzen du abuztuaren 1eko 27/2011 Legean aurreikusitako FSa.

#### **V.- Etorkizuneko bilakaera, Euskadi eta Nafarroatik aztertuta**

Gizarte segurantzaren eta pentsio-sistemen ereduak (gizarte babesa, zentzu zorrotzean) Estatuan izan dezakeen bilakaera ikusita, eta horrek Euskadin eta Nafarroan ere eragina duenez, nahitaez, hausnarketa autonomo bat egin dezakegu, herrialde gisa (Euskadi eta Nafarroa), nolabaiteko zehaztasunez deskribatzeko zer egoeratan gauden eta zer alderdi lehenetsi behar ditugun gai horren inguruan ditugun pentsamenduetan.

Alde horretatik, pentsioen alorreko kontu garrantzitsuenetako bat da "NOLA" egiten diren aldaketak.

Horregatik, baloratzen hasi behar dugu zein diren jorratu behar ditugun gai nagusiak, gizarte segurantzaren eta pentsioen alorrean, Euskadin eta Nafarroan.

Pentsio Publikoei dagokionez, lehen esan dugun bezala, Iraunkortasun Faktorearen eta Errebalorizazio Faktorearen Legetik ondorioztatu daiteke zer-nolakoa izango den bilakaera; halaber, kuantifikatu daiteke noraino murriztuko diren Gizarte Segurantzaren estaldurak Euskadin eta Nafarroan, kudeaketa ekonomikoa autonomia izanda ere, eskumenen gehieneko mugaraino eta bestelako estatus juridiko-politiko bat lortzera iristen den bitartean, hau da, bi autonomia erkidegoen eskumen guztiak eskualdatuta egonda ere.

Iraunkortasun faktoreari dagokionez, aurreikusita dago faktore honek jasotzea bizitzaluzerarik handienaren eragina, pentsioa modulatu (murriztu) dezan, bizitza-aurreikuspenen eta jasoko denaren arabera. Zehatzago esanda, eta iraunkortasun faktore honi lotuta, honakoak aurreikusita daude:

-2019 urtetik aurrera aplikatzea. 2019 urtetik aurrera egongo diren pentsio berriei aplikatuko litzaieke.

-Edukia 5 urterik behin berraztertuko litzateke .

Murrizketa portzentajeei dagokienez, pentsioen etorkizunari buruzko aurretiazko Txostena egin zuen batzordeak iragarri du hamarkada bakoitzeko %5eko murrizketa egingo litzatekeela, eta murrizketa hori 2050ean %20era iritsiko litzateke.

Horrela, 35 urtetan soldataren arabera pentsioen portzentajearen %20ko gutxieneko murrizketa izango dugu. Murrizketa hau egingo da eta ez dauka zerikusirik pentsioak eguneratzeko sistema berriagatik produzituko denarekin.

Bestetik ere, errebalorizazio indizeak, bere aldetik, legeak pentsioak KPIren arabera igotzeko ezartzen duen derrigorra ezabatzen du. Faktore hau "behera" egingo duten beste lau faktoreren mende egongo da. Faktore positibo izan ohi dira Gizarte Segurantzaren sarrerak. Faktore negatiboak dira pentsio kopuruak (gora egiten dutenak), pentsio zaharren ordezkapena, hildakoen pentsioak, erretiratu berrienak (gizarte garatuago batean gehiago kotizatu dutenak) eta, urtero, Gizarte Segurantzaren dagoen defizitetik ere hartzen dela. Beste hitzetan esanda, pentsioak eguneratu ahalko dira %2ko erritmo errealean hazten bada. Ondorio modura:

-Hamarkada bakoitzeko %5eko murrizketa izango dugu

-Pentsioen eguneratzea bermatzen EZ duen Estatuak daukagu.

Gertakari horiek biak dira larriak arlo ekonomiko, sozial eta politikoan .

Egia esan, Lege hori lehenengo betekizunaren kontra doa, zuzenean, hau da, "segurtasunaren" kontra. Aurrerantzean, bi faktore horien eraginez, Gizarte Segurantzaren pentsioak ez dira seguruak izango. Aldakorrak izango dira, beherantz, zeren herritarren bizkar utziko baitira gure gizartearen arrisku ekonomiko, biometriko, finantzario eta demografiko guztiak. Eta egiten du, gainera:

-Adineko pertsonena moduko gizarte taldeekiko, errenten beherakadaren aurrean erantzuteko modurik ez dutenak.

-Erreferentziazko indizearen kasuan, ezin da alde aurretik aurreikusi.

Horregatik, Lege honen ondorioa da Estatuak bertan behera uzten duela bere herritarren segurtasun ekonomikoa bermatzeko betebeharra, adinagatik edo osasunagatik lan-merkatutik irten behar dutenean. Modu nabarian ahultzen ditu pentsio publikoak. Pentsio publikoak pentsio osagarriak baino handiagoak dira, baldin eta Estatuak berak soilik eman ditzakeen berme handiagoak ematen badizkie, hala nola pentsioak inflaziotik eta ziklo ekonomikotik babestea, gutxienez. Hori guztia kolektibo ahul bat babesteko, zeren ezin baitu erreakzionatu bere errentak eroste-ahalmena eta -adin horietan- babes-ahalmena galtzen dituenen.

Horregatik, Lege honekin, Estatuaren ahultzearen aurrean, bi gai nagusi agertzen dira:

-Alternatiba eta IRTENBIDE orokor eta eraginkorrik eskaini ote dakioke, Euskaditik, pentsio publikoaren murrizketari?

-Lehentasunezko botere publiko gisa legitimatu ote daitezke Euskadi eta Nafarroa beren botere eta eskumenekin?

Erantzuna baiezkoa izanez gero, uste dugu aukera historiko bat dugula kudeaketa propioa gehiago legitimatzeko, eta baita geroagoko bilakaera politikoa ere legitimatzeko (independentzia pentsioen eremuan?).

Gure iritziz, hiru alderdi hauen inguruan hausnartu beharko genuke:

- Gizarte Segurantzaren transferentzia negoziatzea eta lortzea

- Irtenbide osagarri orokor bat bilatzea Gizarte Segurantzaren murrizketari aurre egiteko.

- Gure hazkunde ekonomikoa Estatukoa baino handiagoa izatea.

Lehenengo gaiari dagokionez, nahiz eta pentsatzen dugun Espainiako Gizarte Segurantzako eredu ahula eta segurtasunik gabekoa dela (aurrerantzean ez da ezer ere bermatuko), kotizazioen arazo larriagatik (enplegu gutxi eta kalitate eskasekoa) eta arazo demografikoengatik, eta europar Gizarte estatu moderno batekin bat ez etorri arren, egia da negoziatzea eta transferentziak lortzea, estatutuek ezarritako eran, bazterrezina dela gaur egun Euskadi eta Nafarroarentzat.

Horregatik, Euskadin eta Nafarroan defizita zein superabita egonda, gaur egun hori EZ da elementu nagusia izan behar Gizarte Segurantzaren transferentzia planteatzerakoan eta negoziatzerakoan.

Gainera, defizit/superabit erlatiboa gai koiuntural bat da, ziklo eta eredu ekonomikoen heldutasunari eta etorkizunean gerta daitezkeen hazkunde edo atzeraldiei lotuta. Estatuarekin alderatuta, pentsioek Euskadin eta Nafarroan duten arazoa ez da BPGaren % 1 gehiago edo gutxiago izatea; aitzitik, horren dimentsioa askoz ere handiagoa da, zeren Estatuaren eta botere publikoen rola legitimizatzen iritsi ahal baita funtsezko gai horretan.

Bigarren gaiari dagokionez, kontua da galdetzea Gizarte Aurreikuspen Osagarriak EAJ-PNVren ustetan zer funtzio bete beharko duen eta, bere kasuan, zer nolako bultzada eman beharko zaion, dagokien oinarrietan orokortzea begira.

Horrek aukera bat irekitzen du Euskadik eta Nafarroak oinarritzko elementu bereizlea izan dezaten ongizaterako, Espainiakoa baino askoz ere hobeagoa. Hori guztia baldin eta lortzen bada pentsio eredu koherente bat sortzea, adostea eta garatzea, gutxienez pentsio publikoetan eta pentsio osagarri orokortuetan (enpleguari lotuta, ahal izanez gero).

#### **VI.- Gizarte aurreikuspen osagarria Euskadin. Pentsio sistemaren baitan duen egitekoa**

Pentsio sistema ezberdinen artean egin daitezkeen edozein azterlan alderatuk ondorioztatzen du gizarte aurreikuspen osagarriak duen garrantzia. Oinarritzko elementua da eta, oinarritzkoa den heinean, aitortuta eta sustatua izan beharko luke, inola ere, baieztapen horrekin Gizarte Segurantzak, gizarte ongizatearen zutabe nagusia den aldetik duen garrantzia ahuldu gabe.

Gizarte aurreikuspen osagarriaren oinarritzko helburua da pentsio maila egokiari laguntzea, pentsio horiek nahikoak, seguruak eta iraunkorrak izatea nahi dugulako. Pentsio publikoarekin (horren osagarria baita) batera lortu nahi da euskal herritarrek erretiroan izan dezala lanean lortu duten azken soldatetik hurbilen egongo den pentsioa.

Eredurik aurreratuenek bigarren zutabe indartsua duten sistema finkatu dute. Zentzu honetan, Europar Batzordeak onartutako pentsioen liburu zurian zera jasota dago: "...erretirora begirako aurrezki plan osagarriek egiteko garrantzitsuagoa izan beharko dute pentsioen egokitzapena bermatze aldera. Ondorioz, estatu kideek pentsio plan osagarrien errentagarritasuna eta segurtasuna hobetzeko bideak eta pentsio plan osagarri horiek eskuratzeko aukera berdintzaileak bilatu beharko dituzte."

Euskadik azken hamarkada hauetan ahalegin handia egin du gizarte aurreikuspen osagarriaren alde, eta egindako lan horren balioa goraiatu eta azpimarratu behar dugu.

Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei lotutako ondareak BPAren %30,7a suposatzen du, hau da, OCDEren batz bestekoaren antzekoa da. Horren aurrean, Espainiako batz bestekoa %8koa da, 2008 urtetik aurrera espero dena baino hazkunde txikiagoa antzeman den arren. Edozein kasutan, termino orokorretan zein pertsonaletan aurreratuen dauden herrialdeetatik urrun gaude oraindik, oso azpimarragarria da kontu bakoitzeko batz besteko ondarea baxua dela, helburu nagusia betetzeko behar diren mailetatik urrun, alegia.

Egoera honetan, agerian geratu da Gizarte Aurreikuspen Osagarriak Euskadin bultzada berriak behar dituela, anbizio handiagoa izaten lagunduko digun aldi berria hasteko orduan. Benetako lehentasun politiko gisa kokatu behar dugu ongizate estatua birdiseinatze orduan eta, bereziki, pentsioen sistema birmoldatzeko orduan.

EAJ-PNVren aburuz, gizarte aurreikuspen osagarriarako euskal eredu honako oinarri hauen bidez bideratu beharko litzateke :

- 1.- Lehen helburua: Pentsioen sistema harmoniko eta iraunkorra finkatzea, zeinen bidez pentsio publikoaren eta osagarriaren baturak lanean jaso den azken soldatetik ahal denik eta hurbilenekoa emango duen.
- 2.- Euskal Autonomi Erkidegoak gizarte aurreikuspen osagarriaren dituen eskuduntzak garatzea, aseguruetatik eta pentsio plan eta funtsetatik bereizita egongo den gai autonomo gisa.
- 3.- Eredurek irekia eta tresna ezberdinekin (bigarren eta hirugarren zutabea) pentsioetarako aurreztera bideratuta.
- 4.- Etorkizunera begirako prestazio berriak: mendekotasun egoerek dakartzaten erronkak .



- 5.- Kudeaketa aurreratua: gobernu ona, errentagarritasuna, gardentasuna, kudeaketa kostuak.
- 6.- Norbanakoaren eta familiaren aurrezkiak etorkizuneko pentsioetarako; aurrezki pribatua-erkidegoaren aurrezkiak, herriaren beraren barruko garapenarekin konprometitua.
- 7.- Pentsio-kultura izango duen herria, gizarte aurrezkiak izateko kultura izango duten herritarrak .
- 8.- Arau eta tributuen marko propioa, bermatzailea eta malgua.
- 9.- Erakunde publikoak eta Gizarte Aurreikuspen Osagarria sustatzea.

**VII.- Gizarte Segurantzza Euskadin eta Nafarroan. Egin daitekeen traspasoa eta izan dezakeen eboluzioa.**

Aurreko atalean, aztergai izan dugu zer esparru kontzeptualetan mugitzen den Gizarte Segurantzza, araudiaren alorrean . Erreferentziazko esparru hori ezinbestean hartu behar da kontuan; izan ere, euskal Gizarte Segurantzaren eredu propioa eta idealaz pentsatzen hasi nahi bagenu ere, horrek ezin izango luke ahaztu ereduak Estatuan (eta Euskadin) izan duen kokagunea, lurraldearen, historiaren eta erlazioen ikuspuntutik; hau da, egin litekeena da, kasurik onenean, horien eboluzioa bilatu, gaur egun dugunetik lortu nahi dugunera, betiere ondo ulertuta ezen gaur egun, ia maila guztietan, ekonomiatik finantzetara, eta baita bizi mailan ere, euskal Gizarte Segurantzza espainiar Estatuaren Gizarte Segurantzaren zati dela. Horrek ez du esan nahi ezin planteatu daitekeenik horrela izaten uzteari, edo, bestela esanda, zergatik ez dugu pentsatu behar Euskadi, bere instituzio propioak dituen komunitate politiko gisa, bere Babes Publikoko sistema propioa eratzen eta kudeatzen has daitekeela, euskal Gizarte Segurantzaren egiturak funtsezko rola jokatu?

Alde horretatik, paradigmaticoa da, eta egokia da orain gogoratzea, Euskadiren sistema juridiko-politiko pasatuko balitz Espainiar Konstituzioaren VIII. Tituluaren Autonomia Erkidego bat izatetik Konstituzio horretako lehenengo Xedapen Gehigarrian zuzenean txertatutako Estatu espezifikoa duen Komunitate bat izatera (ez erkidego autonomoa, erkidego desberdina baizik), Euskadiko Estatu Politiko Berriaren erreforma proposamena Eusko Legebiltzarrean 2004ko abenduaren 30ean onartu zenenean modu egituratuan saiatu zen bezala, Gizarte Segurantzaren alorrean konplexua izan zela espainiar Estatuarekin konpartitutako politikatik harago joatea, nahiz eta erredakzioa proposamen konstituzional baten eta proposamen estatutario baten artean mugitzen zen. Orain arte esandakoak erakusten diguna hau da: gaur egun, eta gogoeta honi dagokionez, garrantzitsua dela euskal Gizarte Segurantzza sortzeko ikuspegia fasez fase planteatzea; hala, hasteko, Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren eskualdatzea sustatu beharko litzateke, hitzarmenean inspiratutako eredu bat oinarritzat hartuta. Geroago, berriz, metatutako esperientziaren ostean, prestazio-eredu publikoaren oinarriak jarri beharko lirateke, euskal Gizarte Segurantzza publikoa gidatu behar duen sarrera eta gastuen ereduari nahikotasuna emateko, horrek dituen ezaugarriekin: borondatezko gizarte aurreikuspenak jokatu behar duen rola eta bere erregimen juridikoa (jadanik heldu diogu, baina horrek ere eboluzionatu egin dezake), bere bilakaera finantzarioa, eta abar; laburbildurik, gizarte segurantzako esparru propio bat sortzea, alor horretako ahalmen legegile eta arautzailea barne sartuta.

Horregatik guztiagatik, euskal Gizarte Segurantzaren eredu idealaren oinarriak jarri aurretik, Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketaren eskualdatze ordenatuari heldu behar zaio, errealismo instituzionaletik eta pragmatismo politikotik, Euskadiko instituzioak Estatu instituzioen lekuan berehala jartzeko (enplegu politika aktiboekin egindakoaren antzera), kudeaketa horri dagokionez; gainera, indarrean dagoen Estatuaren betearazpen zorrotza bermatu behar da, ahal izanez gero estatuko legeetan egin beharreko aldaketarekin, batasun eta elkartasun printzipioaren irakurketa koherente bat sendotzeko Gizarte Segurantzaren eremuan, Konstituzio Auzitegiak gai horri buruz emandako epaietatik urrunduta; izan ere, ziur gaude epai horiek bestelakoak izango liratekeela espainiar Estatuak borondate politikoa izango balu Euskadiko egoera espezifikoei egokitutako garapenak gauzatzeko. Horrek guztiak oinarri egokiak bermatu

beharko lituzke, azkenez, gutxieneko ikuspegi federalez eta konpartituaz jokatzeko hain garrantzitsua den eta edozein zuzenbide-humanismo sozialaren imaginarioan hain txertatuta dagoen gai honetan.

Ildo beretik, eta eskualdatze hori egiteaz batera –geroago aztertuko dugu xehetasun handiagoz-, Euskadiko Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa ordenatu hori bidera dezakeen kudeaketa- eta antolaketa-eredu baten oinarriak jarri behar dira, bere instituzioekin eta bere finantzazioarekin, eta baita bere antolaketa eta harremanekin ere.

### **VIII.-Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa eskualdatzeko eredu duin bat.**

Nahiz eta bi aukera egon eskualdatzea egiteko (bata posibilista da, baina motza, eta bestea izan beharrekoan zentratzen da gehiago), ezinbestekotzat jo beharko litzateke gure eskumen-esparruaren gutxieneko itxaropenak betetzen dituen eskualdatze bat lortzea, ezaugarri hauekin: 1) prestazioen kudeaketak era guztietako kontingentziak hartu behar ditu barne, eremu subjektibo zabalenarentzat eta prestazio guztietan {INSS}, (2) aurrekontu-autonomiaren gradua handitu behar da, (3) kudeaketa-hitzarmenen bidez kolaboratzeko aukera ireki behar da, edo dirua biltzeko funtzioa delegatu, (4) elkartasun funtsean parte hartu behar da, (5) enpresak erregistratzeko eta langileen afiliazioa, altak eta bajak tramitatzeke lan instrumentalak bereganatu behar dira eta (6) gai horri buruzko zehapen-ahalmena erabili behar da.

Eduki horiek **hasierako planteamendu teoriko** honekin formulatu daitezke:

Aurrekoarekin bat etorrita, Euskadik eta Nafarroak Estatu ordezkatuko balute gizarte segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketan, hipotesi horretan helburu eta eredu hauek lortzen saiatu beharko genuke:

1.-Prestazioen euskal kudeaketa estatuko Legeak definitzen dituen kontingentzia guztietara iritsi beharko litzateke, salbuespenik gabe, bertan definitutako eremu subjektiborako, baina eremu hori handitzeko euskal ahalmenarekin; beraz, prestazio guztiak hartuko lituzke barne.

2.-Euskadik eta Nafarroak gizarte babesaren sistema publikoaren alorrean duten aurrekontu-autonomiarekin gradua handitu eta bateragarri egingo da bertako instituzioen autonomia finantzario singularrarekin, gizarte babesaren sistema publikoaren eremuan. Zehazki, Estatuak proiektu mailan informatuko du, aurrekontuak Euskal Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan onartuko dira, eta Gizarte Segurantzaren Aurrekontu Orokorren eranskin gisa txertatuko dira automatikoki,.

3.-Euskadi eta Nafarroako Instituzioek diru-bilketaren funtzioa bereganatuko dute beren lurralde-eremuan, diru-bilketa betearazlean modu positiboan kolaboratzeko aukera baztertu gabe. Baliabide finantzarioen titulartasunaren batasun printzipioa bermatuta geratzen da Euskadik eta Nafarroak Elkartasun Funtzari begira bere egiten dituzten betebeharrengatik, zuzkidurari zein parte-hartzeari dagokienez; Funtz hori sistemaren defizitak eta superabitak konpentsatzeko ezarriko litzateke. Horrez gain, Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtzarekin erlazionatzeko mekanismo bat ere ezar liteke

4.-Euskadik eta Nafarroak Elkartasun Funtsean izango duten parte-hartze bateratua determinatuko da. Beharrak asetzearekin zerikusia duten irizpideak kontsideratuko dira, estatuko legediak determinatzen dituen prestazio teknikoaren erregimen finantzarioaren arabera.

5.-Euskadi eta Nafarroako Instituzioak jarduera instrumental guztiez arduratuko dira, hala nola: enpresak erregistratzea eta langileen afiliazioak, altak eta bajak tramitatzea; prestazioak jasotzeko eskubidearen aitortza, horri dagokion gastua onartzearen eta ordenatzearen bitartez; obra, zerbitzu eta horniduren kontratazioa; eta ondarea kudeatzeko esparru deskontzentratu berri bat (hori baino lehen, asistentzia eta arreta sanitarioaren zerbitzu publikoei eta gizarte zerbitzuei atxikitako ondarea eskualdatuko zaie horien Euskadiko eta Nafarroako titularrei).

6.-Beren egoitza Euskadin duten Laneko Istripu eta Lanbide Gaixotasunen Mutuen tutoretza eta zuzendaritza Euskadi eta Nafarroako Instituzioen eskuetan egongo dira, eta

gauza bera gertatuko da Euskadin kokatutako gainerako Lankidetzaren-erakundeekin ere, horien erregimena Euskadin eta Nafarroan garatzekoa baldin bada, hori guztia finantza- eta aurrekontu-autonomiaren esparruan. Aipatutako Erakunde pribatuen lurraldez kanpoko jardunak ez du aldaketarik sortuko konexio irizpidean.

7.-Euskadi eta Nafarroako Instituzioen eskuetan egongo da gai horretako zehatze-ahalmena, eta ikuskaritzari dagozkion zerbitzuak eta berezko eginkizuna bereganatuko dituzte.

8.-Bukatzeko, prestazio teknikoaren maila bereiziko da harremanen eta sistemaren alderdi ekonomiko-finantzarioen mailatik; hala, horiek Hitzarmen singular baten bidez arautuko dira, Euskal Kontzertu Ekonomikoan eta Nafarroako Hitzarmenean araututako harremanen baitan.

### **IX.- Gizarte segurantzaren erregimen ekonomikoaren antolaketa eta kudeaketa Euskadin eta Nafarroan**

Antolaketari dagokionez, garrantzitsua da itxuraz garbi egon arren interesgarriak diren bi gai planteatzea eta –hortaz- jorratzea. Alde batetik, aztertu behar da ea komenigarria izango litzatekeen mantentzea, Euskadin eta Nafarroan, oraingo erakunde kudeatzaileen arteko bereizkuntza, Euskadi eta Nafarroak gizarte segurantzaren erregimen ekonomikoaren prestazio eta kudeaketa eskuratu eta gero; beste alde batetik, begiratu behar da ea komenigarria izango litzatekeen erakunde espezifiko independente bat sortzea, administrazio orokorretatik kanpo, gizarte segurantzaren erregimen ekonomikoa Euskadin eta Nafarroan kudeatzeko.

Lehenengo gaiari dagokionez, kontua hau da: mantendu beharko ote litzateke erakunde kudeatzaile desberdinak dituen eskema hau Euskadi eta Nafarroak erregimen ekonomiko hori kudeatzen dutenean, ala hobe izango litzateke kudeatzaileak bateratzen saiatzea, edo gutxienez homogeneizatzen saiatzea?

Gai horri ezezkoa eman zitzaion bere garaian (80eko hamarkadaren amaieran), eta ez dirudi gauzak aldatu direnik. Garai hartan bezala, uste dugu gizarte segurantzaren kudeaketa, bertan biltzen diren erregimenak zeinahi direlarik ere, Euskadin eta Nafarroan egin daitekeela eta egin behar dela, modu zentralizatuan (hasieran, erkidego bakoitzean, eta geroago modu bateratuan, konbergentzia instituzionala lortu eta gero, lortutako burujabetza mailaren arabera), hau da, erakunde bakar batek hartu beharko luke ardura hori, edo askoz jota bi erakundek, geroago esango dugunaren arabera, eta hori beren garaian aipatu eta orain arte berdin iraun duten eraginkortasun eta efizientzia arrazoiengatik.

Horrenbestez, antolaketarekin zerikusia duen lehenengo kontu horren konklusio gisa, kudeaketa bateratua mantenduko genuke, erakunde bakar batean. Bertan, gizarte segurantzaren gai hutsak atal administratibo bati asignatuko genizkioke, berak kudeatu ditzan; enpleguarekin zerikusi handiagoa duten gaiak, berriz –lehen aipatutakoak, adibidez, gaur egun gizarte segurantzarekin lotuta egon arren-, enpleguaren alorreko prestazioak kudeatzen dituzten atal edo erakundeen ardurapean egongo liriateke.

Bigarren gaiari dagokionez, hau da, gizarte segurantzaren erregimen ekonomikoa Euskadin eta Nafarroan kudeatuko lukeen erakunde espezifiko bat administrazio orokorretik kanpo sortzeko komenigarritasunari dagokionez, erantzun beharreko galdera da zer abantaila eta zer eragozpen sortzen diren Euskadiko eta Nafarroako gizarte segurantzaren kudeaketa Administrazio Orokorraren Sail batek eramaten badu (lurralde-administrazio bakarra lurralde bakoitzean) edo izaera bereziko atal kudeatzaile bat sortzen bada (erakunde autonomoa edo gisa berekoa), bi erkidegoek gizarte segurantzaren alorrean une bakoitzean dituzten eskumenak eta kudeaketa-politikak biltzeko.

Antolaketarekin zerikusia duen bigarren kontu horren konklusio gisa, kudeaketa deszentralizatu lehenetsiko genuke, gai horretarako espresuki eratutako instituzio edo erakunde baten bidez; erakunde horrek gizarte segurantzaren kudeatuko luke (transferentzia hutseko une honetan) eta gizarte segurantzaren eskualdatze osoaren aurrekontuaren kudeaketa autonomoa izango luke (enplegu politika pasiboak eta FOGASaren kudeaketa kanpo utzita), hau da, erakunde horrek ordezkatzeko luke,

Euskadin, INSS, ISM eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kudeaketa. Logikoa denez, hori guztia bai Euskadin eta bai Nafarroan, intentsitate berdinarekin eta eskumen maila berdinarekin; maila hori, gainera, handituz joango litzateke bi lurraldeetako autogobernu maila hazten den neurrian, eta, unerren batean, egitura berdinekin, kudeaketa naturaltasunez bateratzeko.

**X.- Ondorio modura: sistemaren beraren ezaugarriak eta Euskadi eta Nafarroan gizarte segurantza sistema propioa izateko jarduera batzuk proposatzea. Egiteko ditugun lan batzuk**

EAJ-PNVk aldarrikatzen du Babes Sistema publiko, nahiko eta ez-erregresibo bat konfiguratzeko Euskadirentzat. Sistema horrek bat etorri behar du gure eskumen-esparruarekin, gizarte babes eta segurantzaren alorrean dugun esperientziarekin eta Kontzertu Ekonomikoak ahalbidetzen dizkigun baliabideekin eta kudeaketarekin; horri begira, gainera, beharrezkoa da Estatuko Gizarte Segurantzaren oraingo aurrekontuaren prestazioak eta kontingentziak –gaur egun, aurrekontu orokorren mende daude- gero eta neurri handiagoan bereganatzea, gure Autonomia Erkidegoko aurrekontuetara pasatuz.

Horrek esan nahi du gizarte segurantzako esparru propio baten eraikuntza ezin egin daitekeela posizio teorikoetatik soilik, zeren alor praktikoa ere baita ezinbestekoa, hau da, **gizarte segurantzaren erregimen ekonomikoa eskualdatzeko akordio duin bat lortu behar da**, estatutuaren irakurketa eskuzabala eginez, geroago, autogobernua egiten diren aurrerapausoak oinarritzat hartuta, esparru propio bat itxuratzen, horren bidez asetzeko Euskadik eta Nafarroak gizarte segurantzaren alorrean dituzten beharrak.

Ordena horretan, bai denbora aldetik eta bai funts aldetik, gure kontingentzien babesak ahalbidetu lezake -gure langabezia-ratioarekin (gaur egun, Estatukoaren erdia) eta gehieneko kotizazio-oinarriengatik kotizatzen duten pertsonen ehuneko handiarekin, eta baita gure Herrialdeko enpresa-ehunarekin eta egitura ekonomiko bereziarekin- finantza aldetik iraunkorra den sistema bat egituratzea, bestelako ezaugarriekin (indarrean dagoen sistemarekin alderatuta).

EAJ-PNVk proposatzen du osagai hauek izango litzuzkeen gizarte segurantzako Sistema bat eratzea: kotizazioen (kotizazio kontributiboen) bidez finantzatutako Sistema Publiko bat, zergen bidez finantzatutako Sistema Publiko bat (gehien bat ez-kontributiboak, baina baita diru-sarreraren bermekoak ere) eta Sistema Osagarri, Borondatezko edo Libre bat, enpleguko BGAEak positiboki diskriminatzen planteamenduen bidez bultzatuta –batez ere planteamendu fiskalen bidez-, Gizarte Babeseko sistema uniforme baterantz hurbilduz. Gizarte Segurantzako Sistema horrek ahalbidetu dezake kontingentzia kontributiboak uztartzea pentsio-ez kontributiboekin, diru-sarrerak bermatzeko errenta asistentzialekin edo gizarteratze-errentekin, eta baita gizarte larrialdietako laguntza autonomikoekin eta egoera txarrean dauden kolektiboek laguntzera zuzendutako ekimen berriekin ere; horiek aldakorak izan daitezke denbora aldetik, baina sisteman txertatzeko modukoak.

Lehen esandakoa lortzeko, **Organo Kudeatzaile bat konfiguratu beharko litzateke Euskadin eta Nafarroan: LAGUNKIDETZA edo gisa berekoa. Organo horrek gaitasuna izan beharko luke gizarte segurantzaren erregimen ekonomikoaren eskualdatze eredu prestatzeko, hasierako unean, eta gizarte segurantzaren kudeaketa osoa egiteko, bere dimentsio unibertsalenean geroago** (kotizazioen dirua biltzea, kotizazioen zenbatekoak determinatzea, moratoriak, gerorapenak eta barkamenak onartzea, zehatze-ahalmena erabiltzea eta Eusko Jaurilaritziari eta Nafarroako Gobernuari proposamenak egiteko ahalmena).

Organo hori bere zereginetarako beharrezkoak diren eremu funtzionaletan egituratuko da: babes kontributiboa; babes asistentziala edo ez-kontributiboa; aurreikuspen sistema osagarri edo borondatezkoen jarraipena (ez erregulazioa, hori administrazio orokorren esku geratzen baita). Organo horrek adostu beharko du, gizarte-solaskideekin, beharrezkoak diren baliabideak eskuratzea ahalbidetzen duen errenta-politika bat: kotizazio-oinarriak eta horien eboluzioa; eta gizarte babesaren konpromisoa.

Hala, EAJ-PNVrentzat, hemen proposatzen dugun Agentzia publikoa, LAGUNKIDETZA, ez litzateke inola ere tresna hutsa izango, baizik eta Sistema alternatibo baten elementu bereizlea. Pentsioen eta Gizarte Babes eta Segurtasunaren Euskal sistema publiko bat, solidarioa, iraunkorra eta belaunaldien artekoa, ereduaren Prestazioak –oraingoak eta gerokoak- eskaini eta kudeatzen dituena. Sistema horrek gidatzen duen helburua da herritarrek eskatzen dituzten prestazioak finantzatzea, babes sozialeko politikak tutoretza juridiko-administratibo bakar baten baitan harmonizatuz (LAGUNKIDETZA edo horren antzekoa, bi erkidegoetan), une bakoitzean egokia denaren arabera, prestazio hauek integratuz: prestazio kontributiboak; prestazio asistentzialak (adibidez: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta); eta egoera txarrean dauden herritarrei laguntzeko beste prestazio batzuk, garaien arabera aldakorrak. Gizarte ekintzako mekanismo horiek guztiak, gainera, ordenamendu sistemiko hobea izango dute eta euskal eta nafar Administrazioen kontrol edo tutoretza finantzarioaren mende jarri beharko dira, LAGUNKIDETZarentzat edo horren antzeko organoarentzat adosten diren tutoretza eta kontrol politikoarekin.

Arlo hauetan bietan eman behar dira urrats irmo eta zehatzak, arestian aipatutakoetan egin daitezkeen garapenak ahaztu gabe eta errealismo zorrotzena gogoan, emango ez diren egoerak baino, egin ahalko direnak azpimarratuta. Lehenengo eta behin, Estatutuan jasota dagoenaren traspasoa exijituta eta, bigarren urrats gisa, kudeatzeko oinarriak ezarrita. Hori dena egin beharko da etenik gabe eta euskal gizarte segurantzaren eredu zikin dezaketean kritikei beldurrik izan gabe, gizarte babeserako euskal sistema integrala ahalbidetuko duen mundu irekiagoa gogoan.

# **HACIA UN SISTEMA PROPIO DE SEGURIDAD SOCIAL Y PENSIONES EN Y PARA LA COMUNIDAD AUTONOMA DE EUSKADI Y LA COMUNIDAD FORAL DE NAFARROA. CONSTRUYENDO UNA EUSKADI Y UNA NAFARROA PARA TODAS LAS GENERACIONES**

## **INTRODUCCION**

El Partido Nacionalista Vasco-Euzko Alderdi Jeltzalea, fiel a sus compromisos históricos y vocación demostrada en sus prácticas institucionales y acción de gobierno, manifiesta su compromiso irrevocable en la construcción de una Euskadi para todos y todas las generaciones, configurando un Sistema de Seguridad Social en/desde/para Euskadi, atendiendo a los principios que venimos defendiendo desde nuestro acceso al autogobierno: **sistema de protección sostenible, suficiente en su cuantía de protección, público, irregresivo y gestionado por nuestras propias Instituciones públicas**. Sistema vasco de seguridad social, como pieza esencial de un Estado de Bienestar incluyente, motor y objetivo último de todas las políticas sociales y económicas al servicio de las personas y del País.

